



Iñaki Goenaga – Zentru Teknologikoen Fundazioa

**DOKTOREGOAN LAGUNTZEKO PROGRAMA
V DEIALDIA**

DEIALDIAREN OINARRIAK

1. PROGRAMAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua Laguntza Programak ematea da; onuradunek (aurrerantzean “prestatzen ari diren ikertzaileak”) **doktorego-tesia** egin ahal izango dute Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko (ZTBES / RVCTI) kide den erakunderen batean egonaldia eginez, eta erakunde hori izango da Atxikitako Zentroa.

2. ONURADUNAK

- Goi-mailako unibertsitate-tituludunak
- Ingeniaritzako tituludunek bukatuta izan beharko dute Ikasketa Bukaerako Proiektua.

3. PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

3.1. Iraupena: Laguntza Programaren iraupena **gehienez ere 4 urtekoa** izango da, prestatzen ari diren ikertzaileen Estatutuan ezarritakoaren arabera. Lehen denboraldi bat, bi urtekoa, beka egoeran, eta bigarren denboraldia, beste bi urtekoa, praktikaldiko lan-kontratuarekin. Tesiaren defentsa lau urte horiek igaro baino lehen egiten bada, tesiaren defentsa egiten den hilabeteetan bukatuko da prestakuntza-programa.

3.2. Diru-kopurua: **Beka-garaian** diru-kopuru gordina **1.200 €-koa** izango da hilean. Denboraldi horretan, beka-egoeran prestatzen ari den ikertzaileak eskubidea izango du bere garaian hartzeko bekari dagokion laguntza ekonomikoa, deialdi honetan ezarritako eran, baina lansari edo soldata izaerarik gabe; eta eskubidea izango du **Gizarte Segurantzako** Erregimen Orokorrean sartzeko 63/2006 Errege Dekretuak Lehenengo Xedapen Gehigarrian 1. atalean ezarritakoaren arabera. Halaber, Errege Dekretu horren 6.e) artikuluan ezarritakoaren arabera, beka-denboran prestatzen ari den ikertzaileak bere gain hartu beharko ditu Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartuta egotearen ondorioz dagozkion betebeharrak. Denboraldi honetan dirutza horrek ez du PFEZ ordaindu beharko, 2/2004, 7/2004 y 2/2004 Foru Arauek ezartzen duten bezala.

Hirugarren urtetik aurrera eta Ikasketa Aurreratuen Diploma lortu ondoren, **praktikaldiko lan-kontratua** egingo da prestatzen ari den ikertzailearen eta Atxikitako Zentroaren artean, **legez dagokion ordainsaria** jasoko duelarik.

3.3. Matrikula-tasak: Doktorego Programan matrikulatzea bekaren lehen urtean egingo da nahitaez. Doktorego Programako matrikula-tasen zenbatekoaren %50 prestatzen ari den ikertzaileak ordainduko du eta %50 beka garatzen dueneko Atxikitako Zentroak. Praktikaldiko lan-kontratua izenpetzean, bere garaian Doktorego Ikastaroak egiteko ordaindu zuen matrikularen zenbatekoaren %50 ordainduko dio Atxikitako Zentroak pertsona onuradunari.

3.4. Zentroan hasteko datak: 2008ko urriaren 20a. 2008ko urriaren 20a baino geroago hasiz gero, diru-kopurua egokitu egingo da laguntzaren gozatze-hilabeteetara. Programa gauzatuko den Atxikitako Zentroan hasteko data gorabehera, lehen urteko gozamen-aldia 2009ko urriaren 19an emango da bukatutzat.

4. ESKABIDEAK AURKEZTEA

4.1 Aurkezpena: Fundazioaren web gunean dagoen Eskabide Orriaren bidez egin behar dira eskabideak (www.fundacioncentrostecnologicos.org),

4.2 Datak: Eskabideak 2008ko ekainaren 27tik uztailaren 29ra (bukaera 12.00etan) egin behar dira.

4.3 Baldintzak: Laguntza eskatzeko Goi mailako unibertsitate-titulua behar da, eta Ingeniaritzen kasuan Ikasketa Bukarako Proiektua amaituta izatea.

4.4. Hizkuntzak: Eskabideak gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez aurkez daitezke.

5. HAUTAKETA-PROZESUA ETA LAGUNTZAK JAKINARAZTEA

5.1 Hautaketarako irizpideak

Fundazioak Epaimahai Kalifikatzailea izendatuko du Laguntza Programa emateko. Eskabideen lehenengo balioespena irizpide hauen arabera egingo da:

- Espediente akademikoa
- Duela gutxiko titulazioa

Hautaketa-prozesuaren **lehenengo fase** hau Fundazioaren web guneko Eskabide Orrian eskatzaileak emandako informazioaren arabera bakarrik egingo da. Gero, agiri bidez frogatu behar du emandako informazio guztia egiazkoa dela.

Atzerriko titulazioek Estatuko titulazioekin duten baliokidetasuna Fundazioak ebaluatuko du.

Hautaketa-prozesuaren **bigarren fasea** elkarrizketa pertsonal bidez egingo da, eta hor, besteak beste, ondorengoak balioetsiko dira:

- Hizkuntzak jakitea
- Ikasketa-bukaerako proiektuaren gaia, egindako lan teknikoak, ikasketak eta eskatzaileak aurkezten duen beste edozein meritua.
- Norberaren gaitasunak.

5.2 Jakinaraztea eta Argitaratzea

Laguntza Programak elkarrizketak egindakoen artean banatuko dira. Elkarrizketa egin baina laguntzarik eman ez zaienak ordezkoen zerrendan sartuko dira. Emandako Laguntza Programak gauzatu gabe geratzen badira, Fundazioak beste onuradun bat izenda dezake ordezko gisa daudenen artean.

Hautaketa-prozesu osoan zehar, bere martxaren berri posta elektronikoaren bidez izango dute eskatzaileek.

Laguntza Programen emate ofiziala posta elektronikoz jakinaraziko die onuradunei Iñaki Goenaga—Zentro Teknologikoen Fundazioak, eta deialdi honen emaitzak bere web gunean emango ditu argitara.

Laguntza Programaren bat eman gabe geratzen bada, edo deitutako Programetan aldaketarik gertatzen bada, egoki iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko eskubidea du Fundazioak, betiere deialdi honen atzean dagoen espiritua erabera.

6. GOZAMEN-BALDINTZAK

6.1 Araubide Juridikoa: Laguntza Programen deialdi hau Oinarri hauek arautuko dute eta urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak, Prestatzen ari diren Ikertzaileen Estatutua onartzen duenak, ezartzen duena aplikatuko da.

6.2 Baldintzak

Onuraduna programa garatzeko Atxikitako Zentroan sartzen denean hasiko da Laguntza Programaz gozatzen ere; ezarritako programa burutzerako konprometituko da onuraduna eta Atxikitako Zentroko arauak betetzera beti, probetxu ona izan dezan beharrezko diren jarrera eta interesekin.

Programaren garapenak doktorego-ikastaroetara joatea eta doktorego-tesia ikerketa-proiektu baten esparruan egitea eskatzen du.

Prestatzen ari den ikertzaileak tutore bat izango du, Unibertsitateak izendatua, eta Doktorego Tesiaren zuzendari bat. Bi zeregin horiek pertsona bakar batek ere bete ditzake. Hori alde batera, Fundazioak beti izango du ahalmena prestatzen ari den ikertzailearen jardueraz kontrol orokorra egiteko.

Bekaren bi urteak bukatzean Ikasketa Aurreratuen Diploma ez lortzea Laguntza Programa iraungitzeko arrazoia izan daiteke.

Laguntza Programa honen gozamenaldian ezingo da beste laguntzarik edo ordainsaririk jaso bere edo besteren kontura zerbitzuak emateagatik.

Programa betetzen ez bada, Fundazioak eskubidea izango du emandako diru-kopuruak itzultzea eskatzeko.

Fundazioak eskubidea izango du, urteko edozein unetan, prestatzen ari den ikertzailea egiten ari denaz txostena eskatzeko berari edo Atxikitako Zentroari. Txosten hori ez bada aurkezten edota aurkeztutakoaz Fundazioak ebaluazio negatiboa egiten badu, Laguntza Programa eten egin daiteke berehala. Erabaki horrek motibatua beharko du izan.

Laguntza Programa betiko edota aldi baterako eteteke zio edo motiboak honako hauek izan daitezke:

- Programaren prestakuntza-helburuak lortzeko ezintasuna.
- Programari probetxurik ez ateratzea era nabarmenean.
- Diziplinarik eza.
- Tresneria eta materialak behar bezala ez erabiltzea.
- Atxikitako Zentroko arauetako begirunerik eza.
- Isilpekotasunik eza.
- Diziplinarioki tipifikaturiko egitateak egitea kontratazio-denboran

6.3 Eskubideak eta Betebeharrak: Onuradunek ondorengo eskubide eta betebeharrak izango dituzte:

- Programa garatzeagatik, deialdi honen oinarrietan ezarritako diru-kopurua hartuko dute.
- Programaren edukiaz gain, prestakuntza gehigarria hartzeko aukera izango dute, beren jarduera zertzen ari diren Atxikitako Zentroko arauen arabera.
- Fundazioaren Idazkaritza Teknikoa onuradunen esanetara izango da beti, eskatzen diotenari erantzuteko.
- Beren jarduera zertzen ari diren Atxikitako Zentroko barne-araudia bete beharko dute.
- Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateginak (apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegile bidez onartuak) ezartzen duenaren arabera, onuradunari dagozkio ikerketako prestakuntza-jardueratik eratorritako jabetza intelektualaren eskubideak, bere ekarpenaren arabera. Eskubide horiek independente, bateragarri eta metagarriak izango dira egindako ikerketatik erator daitezkeen beste eskubide batzuekin, aparte utzita, onuradunak ikerketako talde-proiektu batean parte hartzen duenean, talde-lanak berekin dituen baldintza edo mugak.
- Isilpekotasunik zorrotzena izan behar dute ikerketa edo azterketa-gaiei buruz, bai Laguntza Programaren gozamen-aldian eta bai bukatu ondoren, eta Atxikitako Zentroaren berariazko baimena beharko dute horiek erabiltzeko edo/eta beste batzuei jakinarazteko.
- 63/2006 Errege Dekretuak, Prestatzen ari diren Ikertzaileen Estatutua onartzen duenak, ezarritako beste eskubide eta betebeharrak.
- Laguntza Programaren sartuta daude Doktorego Programako matrikula-tasak deialdi honetan ezarritakoaren arabera.
- Laguntza Programa bukatzean, beren lan-egoeraren berri eman beharko diote Fundazioari.

Atxikitako Zentroak 63/2006 Errege Dekretuak, Prestatzen ari diren Ikertzaileen Estatutua onartzen duenak, ezarritako eskubide eta betebeharrak izango ditu, eta beka zuzen

garatu dadin zainduko du, prestatzen ari diren ikertzaileen egin beharreko lana erraztuz.

Ikerketa dela-eta egindako argitalpen orotan, Iñaki Goenaga-Zentro Teknologikoen Fundazioa aipatu behar da. Argitalpenaren kopia bat Fundazioari bidali behar zaio.

Programaren hirugarren urtearen hasieratik aurrera, onuradunak egindakoa egiaztatzen duen Ziurtagiria emango du Fundazioak.

7. BESTE BALDINTZA BATZUK

Laguntza Programa eskatze hutsak esan nahi du Oinarri hauek onartzen direla, eta Iñaki Goenaga-Zentro Teknologikoen Fundazioak erabakiko ditu sortzen diren zalantza eta gorabeherak.

Fundazioak eskubidea izango du bidezko iruditzen zaizkion aldaketak egiteko "Doktoregoan Laguntzeko Programaren" XXIX. Deialdiaren oinarri hauetan.

Laguntza Programak eskatzen dituztenek beren adostasuna ematen diote Fundazioari emandako datuak jakinaraz diezazkien deialdi honetan Programak sartu dituzten ZTBES / RVCTI-ko Eragileei, hautaketa-prozesua egiteko helburuarekin.

Halaber, Laguntza Programa baten onuradunek espresuki onartzen dute beren izen-deiturak onuradunen zerrendan agertzea eta Fundazioaren web gunean argitaratzea.

8. INFORMAZIOA

- Iñaki Goenaga-Zentro Teknologikoen Fundazioan (Tel. 94 420 94 88)
- Web gune honetan: www.fundacioncentrostecnologicos.org